# Bestelako Xedapenak

## OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

**2978**

ERABAKIA 2011ko maiatzaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko zerbitzu-erakundeetan lanpostuak zerbitzu-eginkizunen eta aldi baterako barne-sustapenaren bitartez betetzeko irizpideak eta behin betiko barne-mugikortasun bitartez lanpostuak betetzeko irizpide orokorrak onartzen dituena.

2000ko otsailaren 14ko akordioaren bitartez, 2000ko martxoaren 17an Osakidetzako Administrazio Kontseiluak berretsi zuena, Ente Publiko honetako mugikortasun-sistema arautu zen, behin betiko nahiz behin-behineko mugikortasun horizontaleko sistema ezarriz, azken horren barnean zerbitzu-eginkizunak eta aldi baterako barne-sustapena egonik.

Sistema hori indarrean hamar urtetik gora egon delarik, beharrezkotzat jotzen zen eguneratzea, araudi berria gaur eguneko antolaketa-testuinguruari eta dauden baliabide materialei egokituz.

2007, 2008 eta 2009 urteetarako Osakidetzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioak 2000. urteko Mugikortasunaren Gaineko Akordioa eguneratzea ezarri zuen.

Hartara, mahai sektorialaren arloko zenbait bilera izan dira; hala ere ez da inolako adostasunik lortu Administrazioaren eta ordezkaritza sindikalaren artean.

Hori dela-eta, honakoa onartzen da

ERABAKIA

1.– Bete beharreko lanpostuak.

Bete beharreko lanpostuak izango dira, hala dagokionean, zerbitzu-eginkizun eta aldi baterako barne-sustapen sistemaren bitartez, 6 hilabete edo goragoko iraupena daukaten lanpostu hauek:

– Lanpostu hutsak.

– Lanpostu erreserbatuak titularra zerbitzu berezietan edo nahitaezko eszedentzian dagoelako.

– Lanpostu erreserbatuak titularra amatasun eszedentzia egoeran dagoelako.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

**2978**

ACUERDO de 9 de mayo de 2011, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por el que se aprueban los criterios para la provisión de puestos mediante comisión de servicios y mediante promoción interna temporal y los criterios generales para la provisión de puestos mediante movilidad interna definitiva en las organizaciones de servicios en el Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Acuerdo de 14 de febrero de 2000, ratificado por Acuerdo de 17 de marzo de 2000, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se reguló el sistema de movilidad en este Ente Público estableciendo el sistema de movilidad horizontal tanto permanente como provisional, encontrándose entre esta última las figuras de la comisión de servicios y la promoción interna temporal.

Trascurridos más de diez años de vigencia del mismo, se hacía necesario proceder a su actualización adecuando la nueva regulación al contexto organizativo actual, así como a los medios materiales existentes.

El Acuerdo de regulación de condiciones de trabajo del personal de Osakidetza-Servicio vasco de salud para los años 2007-2008-2009 estableció la actualización del Acuerdo de Movilidad del año 2000.

A tal efecto, se han mantenido diversas reuniones en el seno de la mesa sectorial de sanidad, sin que finalmente se haya alcanzado ningún acuerdo entre la Administración y la representación sindical.

En consecuencia, se adopta el siguiente

ACUERDO

1.– Puestos objeto de cobertura.

Serán objeto de cobertura, cuando la misma sea precisa, mediante los sistemas de comisión de servicios y promoción interna temporal los siguientes puestos cuya duración se prevea igual o superior a 6 meses:

– Plazas vacantes.

– Plazas reservadas por encontrarse su titular en servicios especiales o excedencia forzosa.

– Plazas reservadas por encontrarse su titular en situación de excedencia maternal.

– Lanpostu erreserbatuak titularra zerbitzu-eginkizunetan, aldi baterako barne-sustapenean edo kategoria handiagoko eginkizunak betetzen dagoelako.

– Lanpostu erreserbatuak titularra liberazio sindikal egoeran dagoelako.

– Beste lanpostu huts batzuk edo dagokion titularrak betetzen ez dituenak, aurreikusitako iraupena edozein izanda ere, Zerbitzu-erakundeak hala erabakitzen duenean.

2.– Lanpostuak betetzeko lehentasun-hurrenkera.

Aurreko atalean adierazitako bete beharreko lanpostu guztiak betetzeko lehentasun-hurrenkera honakoa izango da:

1) Barne-egokitzapena/Behin betiko barne-mugikortasuna.

2) Behin-behineko barne-sustapena deitzen duen zerbitzu-erakundean. Sistema hau erabilita lanpostua beteko ez balitz, hurrengo atalean adierazten dena erabiliko litzateke.

3) Zerbitzu-eginkizunak. Sistema hau erabilita lanpostua beteko ez balitz, hurrengo paragrafoan adierazten dena erabiliko litzateke.

4) Aldi baterako zerbitzu-eginkizunak zerbitzu-erakundeen artean. Sistema hau erabilita lanpostua beteko ez balitz, hurrengo paragafoan adierazten dena erabiliko litzateke.

5) Aldi baterako kontratazioa.

3.– Erabaki honen garapena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari eskumena aitortzen zaio erabaki honen garapenerako beharrezkoak diren ebazpen eta jarraibide guztiak emateko.

## I. ATALA
## LANPOSTUAK ZERBITZU-EGINKIZUNEN BITARTEZ BETETZEKO IRIZPIDEAK

1.– Ezaugarriak.

Atal honen helburua da aldi baterako izaera duten lanpostuak Osakidetzako Zerbitzu-erakundeetan zerbitzu-eginkizunen bitartez betetzeko prozedura arautzea.

2.– Baldintzak.

Zerbitzu-eginkizunen bitartez lanpostuak aldi baterako bete ahal izateko baldintzak honakoak izango dira, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean interesa duten pertsonek bete beharko dituztelarik:

– Osakidetzako Zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, langile estatutarioa edo langile laborala izatea edo Osasun Sistema Nazionaleko gainontzeko osasun-zerbitzuetako karrerako funtzio-

– Plazas reservadas por encontrarse su titular en comisión de servicios, promoción interna temporal o desempeño de funciones de superior categoría.

– Plazas reservadas por encontrarse su titular en situación de liberación sindical.

– Otras plazas vacantes o reservadas no ocupadas por su titular, cualquiera que sea su duración previsible, a criterio de la Organización de Servicios.

2.– Orden de prioridad de cobertura de puestos.

El orden de prioridad de cobertura de todos los puestos a los que se refiere el número anterior cuya cobertura sea necesaria será el siguiente:

1) Adecuación interna/Movilidad interna definitiva.

2) Promoción interna temporal en la organización de servicios convocante. En el supuesto de que utilizado este sistema el puesto no se pudiera cubrir, se acudirá al previsto en el número siguiente.

3) Comisión de servicios. En el supuesto de que utilizado este sistema el puesto no se pudiera cubrir, se acudirá al previsto en el número siguiente.

4) Promoción interna temporal entre organizaciones de servicios. En el supuesto de que utilizado este sistema el puesto no se pudiera cubrir, se acudirá al previsto en el número siguiente.

5) Contratación temporal.

3.– Desarrollo del presente acuerdo.

Se faculta a la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud a dictar cuantas resoluciones o instrucciones sean necesarias en desarrollo del presente Acuerdo.

## APARTADO I
## CRITERIOS PARA LA PROVISIÓN DE PUESTOS MEDIANTE COMISIÓN DE SERVICIOS

1.– Características.

El presente apartado tiene por objeto regular el procedimiento de provisión de puestos de trabajo con carácter temporal mediante comisión de servicios en las Organizaciones de Servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

2.– Requisitos.

Serán requisitos para acceder a la cobertura de puestos de trabajo con carácter temporal mediante comisión de servicios, que deberán reunir las personas interesadas al último día de plazo de presentación de solicitudes, los siguientes:

– Ser funcionario/a de carrera, personal estatutario o laboral fijo adscrito a las Organizaciones de Servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud o funcionario/a de carrera o estatutario fijo del resto de

narioa edo langile estatutario finkoa izatea dagokion kategoria/lanpostu funtzionalean.

– Zerbitzu aktiboan egotea eta interesdunak jabetzan lanpostua Zerbitzu-erakunde batean izanda, edo zerbitzu aktiborako behin-behineko berringresua eginda hari atxikita egonda, beste erakunde ezberdin bateko lanpostuak betetzeko eskaria egitea.

Osakidetzako pertsonalak ez du baldintza hauek betetzen dituela egiaztatu behar izango.

3.– Deialdia.

3.1.– Eskabideak aurkezteko lekua eta bidea:

Borondatezko mugikortasun-prozesuetan zerbitzu-eginkizun sistemaren bitartez parte hartu nahi duten pertsonek, Internet bidez egin beharko dute eskabidea, Osakidetzako www.osakidetza.euskadi.net helbidean edo Intranet korporatiboan eskura jarriko den eskabide-orria betez.

3.2.– Dokumentazioa:

Eskabideei honako dokumentazio hau gehitu beharko zaie:

– Betetako Zerbitzuen egiaztagiri originala edo notarioak egindako kopia kautoa, Osasun Zerbitzu Erakundeetako Zuzendaritzak edo eskumena duten Organoek egina, kategoria, lotura juridikoa, taldea eta denbora-tarteak hasierako datatik (eguna, hilabetea, urtea) amaiera datara arte (eguna, hilabetea, urtea) adieraziz, Osakidetzak onartutako denbora-tarteak izan ezik.

Edonola ere, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan egindako zerbitzuak ofizioz hartuko dira kontuan, horregatik ez dago zertan egiaztagiririk erantsi.

– Martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan, Osakidetzan euskararen erabilera arautzen duena, adierazitako edozein hizkuntza-eskakizunen egiaztagiria edo titulu baliokidea, Osakidetzak honezkero badituenean izan ezik.

3.3.– Epea:

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da gutxienez, deialdi bakoitza argitaratzen den egunetik hasita.

4.– Baremazioa.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, haien balorazioa egingo da, honako baremo hau aplikatuz:

4.1.– Lan-esperientzia.

los servicios de salud del Sistema Nacional de Salud en la categoría/puesto funcional de que se trate.

– Estar en servicio activo y efectuar solicitud para la cobertura de puestos en Organización de Servicios distinta de la que el/la interesado/a tenga plaza en propiedad o se encuentre adscrito por reingreso provisional al servicio activo.

El personal de Osakidetza-Servicio vasco de salud no deberá acreditar el cumplimiento de estos requisitos.

3.– Convocatoria.

3.1.– Lugar y forma de presentación de solicitudes:

Las personas que deseen tomar parte en los procesos de movilidad voluntaria mediante el sistema de comisión de servicios deberán realizar la solicitud a través de Internet, mediante la cumplimentación del modelo que se facilita en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud en la siguiente dirección www.osakidetza.euskadi.net o de la intranet corporativa.

3.2.– Documentación:

A las solicitudes deberá acompañarse la siguiente documentación:

– Certificado original o copia auténtica emitida por notario de los servicios prestados con expresión de la categoría, vínculo jurídico, grupo y desglose de los periodos desde la fecha de inicio (día, mes, año) hasta la fecha final (día, mes, año), emitida por la Dirección de la Organización de Servicios Sanitarios o por los Órganos competentes, salvo los correspondientes a aquellos periodos que ya hayan sido reconocidos en Osakidetza-Servicio vasco de salud.

En cualquier caso, los servicios prestados en Osakidetza-Servicio vasco de salud se computarán de oficio, por lo que no se deberá aportar certificado de los mismos.

– Certificado de acreditación, o título equivalente, de cualquiera de los perfiles lingüísticos especificados en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud, salvo que ya obraran en poder de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

3.3.– Plazo:

El plazo de presentación de solicitudes será como mínimo de 20 días hábiles a partir de la fecha de publicación de cada convocatoria.

4.– Baremación.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, se procederá a su valoración, en función de la aplicación del siguiente baremo:

4.1.– Experiencia profesional.

Egindako zerbitzuak baloratzeko, Osakidetzak deitutako azken lekualdatze-lehiaketako deialdietako oinarrietan jabetzan duen lanpostuan lan-esperientzia zenbatzeko ezarritakoa hartuko da kontuan.

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte aitortu zaien zerbitzu denbora-tartea hartuko da kontuan.

4.2.– Euskara.

Euskararen ezagutzaren balorazioa, martxoaren 18ko 67/2033 Dekretuak eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Euskara Planak ezarritakoaren irizpideen arabera egingo da, dagokion kategoria profesionalerako deitutako azken lekualdatze-lehiaketan finkatutako balorazioa erabilita. Aintzat hartuko da hizkuntza-eskakizunetarako indarrean dagoen baliokidetza-erregimena.

5.– Ezagutza espezifikoak.

Lanpostuaren ezaugarrien ondorioz ezagutza zehatz batzuk egiaztatzea beharrezkoa denean, deialdi espezifikoa egin ahal izango da eginkizun espezifikoak betetzeko egokiak diren ezagutza teknikoak eta, Balorazio Batzordeak ebaluatu ditzan, egiaztatze-sistema ere adierazita.

Zenbait izangaik ezagutza espezifikoak egiaztatzen badituzte, zerbitzu-eginkizunetako zerrendako hurrenkeran gorago dagoena izango da izendatua.

6.– Deialdien izapidetza.

6.1.– Deialdia ebaztea.

Zerrenda berriak osatzeko epe-irekiera Zerbitzu-erakunde bakoitzeko Zuzendaritza-Gerentziaren Ebazpenaren bitartez egingo da. Ebazpen hori Zerbitzu-erakundeetako iragarki-tauletan eta Osakidetzako web-orrian argitaratu beharko da.

Ebazpen horretan honakoa jasoko da:

– Kategoriaren eta lanpostu funtzionalaren izena; hain zuzen ere zerrendak eguneratzeko edo osatzeko epea zabaltzen denarena.

– Parte hartzeko baldintzak.

– Baremazio-irizpideak eta, hala dagokionean, ezagutza espezifikoak eta horien egiaztatze-sistema.

– Eskabideen aurkezpena, epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

– Balorazio-batzordea.

6.2.– Behin-behineko Ebazpena.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta interesdunek garaiz eta forman aurkeztutako dokumentazioaren balorazioa eginda, Erabaki honetan ezarritako

Se valorarán los servicios prestados en los términos establecidos para el cómputo de la experiencia profesional en la categoría en que se ostenta el puesto en propiedad en las bases de las convocatorias de último concurso de traslados convocado por Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Se computará el tiempo de servicios que tuvieran reconocido hasta la fecha de la apertura del plazo de presentación de solicitudes.

4.2.– Euskera.

La valoración del conocimiento del Euskera se realizará conforme a los criterios establecidos en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, y en el Plan de Euskera de Osakidetza-Servicio vasco de salud, con la valoración contemplada en la convocatoria del último concurso de traslados para esa categoría profesional. Se tendrá en consideración el régimen vigente de equivalencias de perfiles lingüísticos.

5.– Conocimientos específicos.

Cuando las características del puesto exijan la acreditación de unos conocimientos determinados se podrá realizar una convocatoria específica indicando los conocimientos técnicos adecuados para el desempeño de las funciones específicas, así como el sistema de acreditación de los mismos para su evaluación por la Comisión de Valoración.

En el caso de que varios aspirantes acrediten los conocimientos específicos, se designará al candidato que ocupe la mejor posición en la lista de comisiones de servicios.

6.– Tramitación de las convocatorias.

6.1.– Resolución de convocatoria.

La apertura de plazo para la confección de nuevas listas se llevará a cabo mediante resolución de la Dirección Gerencia de cada Organización de servicios. Dicha resolución deberá publicarse en los tablones de anuncios de la Organización de servicios y en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

En esta resolución se hará constar lo siguiente:

– Denominación de la categoría o puesto funcional para cuya actualización o confección de listas se abre el plazo.

– Requisitos de participación.

– Criterios de baremación y, en su caso; conocimientos específicos y sistema de acreditación de los mismos.

– Presentación de solicitudes, plazo y documentación a aportar.

– Comisión de valoración.

6.2.– Resolución provisional.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes y efectuada la valoración de la documentación aportada en tiempo y forma por los interesados, conforme a

baremazio-pautak aintzat hartuta, Balorazio Batzordeak onartu eta Zerbitzu-erakundeko Zuzendaritza-Gerentziari helaraziko dio izangaien behin-behineko puntuazioaren hurrenkeraren araberako zerrenda, Ebazpen bitartez argitara dadin Zerbitzu-erakundeetako iragarki-tauletan eta Osakidetzako web-orrian.

Ebazpen horren aurka erreklamazioa aurkeztu ahal izango da hamar egun balioduneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, aurreko atalean ezarrita dagoen eran.

Izangaien arteko berdinketa emanez gero, deitutako azken lekualdatze-lehiaketan ezarritako desenpate-irizpideak aplikatuko dira.

6.3.– Behin betiko Ebazpena.

Aurkeztutako erreklamazioak aztertuta, Balorazio Batzordeak onartu eta Zerbitzu-erakundeko Zuzendaritza-Gerentziari helaraziko dio behin betiko zerrenda argitara dadin, Ebazpen bitartez, Zerbitzu-erakundeetako iragarki-tauletan eta Osakidetzako web-orrian.

Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren aurka hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, aurreko atalean ezarritako eran.

6.4.– Zerrendetan izangai berriak sartzea.

6.3. atalean adierazitako behin betiko zerrendak argitaratuta, zerrendak uneoro egongo dira zabalik eskabide berriak sartu ahal izateko. Horrela bada, urtean zehar jasotako eskabideak hurrengo urteko lehenengo hiruhilabetekoan baremaatuko dira, aurkeztutako merituen arabera, Erabaki honen I. ataleko 4. puntuan aurreikusitakoari jarraiki.

Baremaatu arte, eskabideak aurkeztutako dataren arabera ordenatuko dira eta egun berean aurkeztuak balira, adin handiagoaren irizpidea aplikatuko litzateke lanpostu bat betetzeko erabili beharra balego.

Era berean, urte bakoitzeko lehenengo hiruhilabetekoan zerrendak eguneratuko dira ezarritako epean aurkezten diren egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak eta aurreko urteko abenduaren 31ra arte Osakidetzan izandako lan-esperientzia gehituz, dagokion puntuazioa emanda, baremazioari buruzko 4. atalean ezarritakoari jarraiki.

7.– Prozedura.

Zerbitzu-eginkizunen bidezko borondatezko behin-behineko mugikortasun horizontaleko zerrendetan agertzen diren langileen bidez lanpostuak betetzeko jarraitu beharreko prozedura honakoa da:

las pautas de baremación que se recogen en el presente Acuerdo, la Comisión de valoración aprobará y elevará a la Dirección Gerencia de la Organización de Servicios el listado provisional de aspirantes por orden de puntuación para su publicación, mediante resolución, en los tablones de anuncios de la Organización de servicios y en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Contra esta resolución podrá presentarse reclamación en el plazo de diez días hábiles, a contar desde el siguiente al de su publicación en la forma establecida en el párrafo anterior.

Caso de producirse empate entre los aspirantes, se aplicarán los criterios de desempate previstos en el último concurso de traslados convocado.

6.3.– Resolución definitiva.

Examinadas las reclamaciones presentadas, la Comisión de valoración aprobará y elevará a la Dirección Gerencia de la Organización de Servicios el listado definitivo para su publicación, mediante resolución, en los tablones de anuncios de la Organización de servicios y en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Contra esta resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes a contar desde el siguiente al de su publicación en la forma establecida en el párrafo anterior.

6.4.– Nuevas incorporaciones en las listas.

Publicados los listados definitivos a los que se refiere el punto 6.3, las listas estarán abiertas permanentemente para incorporar nuevas solicitudes, de tal forma que las solicitudes recibidas a lo largo del año, serán baremadas en el primer trimestre del año siguiente en función de los méritos que se aporten de acuerdo con lo previsto en el punto 4 del apartado I del presente Acuerdo.

Hasta que no se produzca su baremación, las solicitudes se ordenarán por su fecha de presentación y en el caso de que se presenten en el mismo día, se aplicará el criterio de mayor edad, si resultare necesario acudir a ellas para la cobertura de una plaza.

Así mismo, en el primer trimestre de cada año se actualizarán las listas incluyéndose los perfiles de euskera que se aporten en el plazo que se establezca, y la experiencia profesional prestada en Osakidetza-Servicio vasco de salud hasta el 31 de diciembre del año anterior, asignándose la puntuación correspondiente de acuerdo con el apartado 4, dedicado a la baremación.

7.– Procedimiento.

El procedimiento a seguir para la cobertura de puestos de trabajo con el personal que figure en las listas de movilidad horizontal voluntaria temporal mediante la figura de comisión de servicios será el que a continuación se indica:

7.1.– Lanpostu bat zerbitzu-eginkizunen bitartez betetzeko beharra dagoenean, destinoko zerbitzu-erakundea harremanetan jarriko da zerrendako lehenengo interesdunarekin hasierako adostasunerako, gerora balizko izangaiaren zerbitzu-erakundeari haren txostena eskatzeko, aldekoa izan beharko dena, betiere horrela ez bada zerbitzu-beharrizanak daudelako.

Aldeko txostena badago, zerbitzu-erakunde eskatzaileak, bere esku dauden eskumenak erabiliz, dagokion Ebazpena osatuko du.

Zerbitzu-eginkizunen bidezko borondatezko behin-behineko mugikortasun horizontala esleituta duen langileak eskubidea izango du bere jatorrizko lanpostua gorde diezaioten, antolaketa-aldaketak daudenean izan ezik. Dena den, egoera horretan dagoen bitartean betetzen duen lanpostuari dagokion lansaria jasoko du.

Mugikortasunean zerikusia duten Zerbitzu-erakundeek (jatorria eta helburua), egoera hori bideratu beharko dute pertsonala informatzeko sisteman.

Zerbitzu-eginkizunen bidezko borondatezko behin-behineko mugikortasun horizontalean dagoen denbora-tartean, ezingo zaio pertsona berari beste zerbitzu-eginkizunik eskaini, 8.2 atalean ezarritakoa ematen denean izan ezik.

7.2.– Jatorrizko zentroa beste Osasun Zerbitzu bat izanez gero, zerbitzu-eginkizunerako baimenaren izapidetza Osakidetzako Zerbitzu Zentraleko Giza Baliabideetako Zuzendaritzak egin beharko du.

Dagokion Zerbitzuak ebatzitakoan, destinoko Zerbitzu-erakundeari helaraziko zaio gauzatu ahal izateko, eta gainontzeko erakundeei jakinaraziko zaie langilea ez dagoela libre.

8.– Ezeztatzea, baztertzea, uko egitea.

8.1.– Zerbitzu-eginkizunen bidezko borondatezko behin-behineko mugikortasun horizontala edozein unetan ezezta daiteke, interesduna automatikoki itzuliz zerrendara, puntuazioaren arabera dagokion postura.

8.2.– Zerbitzu-eginkizunak izangaia bizi den udalerrian erreserbatutako lanpostua betetzeko direnean, izangaiak ezingo du beste bat eskatu. Gainontzeko kasuetan, erreserbatutako lanpostu batera joatea eskaintzeko aukera egongo da, lanpostua hutsik dagoenean; dena dela, hasieran esleitutako lanpostuan gutxienez urtebetez egoteko eskatuko zaio.

8.3.– Langileak eskatuta uko egiteak eragingo du Zerbitzu-erakundeko izangaien zerrendatik kentzea, betiere honelakorik ematen ez bada:

7.1.– Ante la necesidad de cubrir un puesto mediante comisión de servicios la organización de servicios de destino se pondrá en contacto con el/la primer/a interesado/a de la lista para su previa conformidad, solicitando posteriormente a la organización de servicios del posible candidato/a su informe, que deberá ser favorable salvo por necesidades del servicio.

En caso de informe afirmativo, la organización de servicios solicitante, en uso de sus competencias, procederá a la emisión de la oportuna resolución.

El personal al que se le asigne una movilidad horizontal voluntaria temporal mediante comisión de servicios tendrá derecho a la reserva de su plaza y puesto de trabajo de origen en su organización de servicios, salvo modificaciones organizativas, si bien durante el tiempo que permanezca en esta situación percibirá las retribuciones inherentes al puesto efectivamente desempeñado.

Las Organizaciones de Servicios implicadas en la movilidad (origen y destino) deberán formalizar dicha situación en el sistema de información de personal.

Durante el tiempo que se esté en movilidad horizontal voluntaria temporal mediante comisión de servicios no se podrá ofertar a la misma persona para acceder a otra comisión, salvo en el caso previsto en el apartado 8.2.

7.2.– Para los supuestos en los que el centro de origen sea otro Servicio de Salud, la tramitación de la autorización de la comisión de servicios será efectuada por la Dirección de Recursos Humanos de la Organización Central de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Una vez resuelta la misma por el Servicio correspondiente, se procederá a su remisión a la Organización de servicios de destino, para hacerla efectiva, comunicando al resto de organizaciones la no disponibilidad del trabajador.

8.– Revocación, exclusión, renuncia.

8.1.– La movilidad horizontal voluntaria temporal mediante comisión de servicios será revocable en cualquier momento, volviendo automáticamente el/la interesado/a a la lista en el lugar que por su puntuación le corresponda.

8.2.– Cuando la comisión de servicios fuera conferida para la cobertura de puesto reservado en la localidad de residencia del/la candidata/a, éste/a no podrá optar a otra. En los demás supuestos, se podrá ofertar el paso a un puesto reservado cuando la conferida lo hubiera sido a puesto vacante, exigiéndose, en todo caso, un periodo mínimo de un año de permanencia en la inicialmente adjudicada.

8.3.– La renuncia a instancia del/la trabajador/a supondrá la exclusión de la lista de candidatos de la Organización de Servicios, salvo en los siguientes supuestos:

a) Justifikatutako eta dagokion Erakundeko Zuzendaritzak onartutako arrazoia egotea.

b) Zerbitzu-eginkizunen iraupena sei hilabetetik beherakoa izan daitekeela antzematen bada.

Gainontzeko kasuetan uko egiteak eragingo du uko egindako lanpostuaren udalerri berean beste zerbitzu-eginkizunik ez esleitzea urtebetez, aurrekoaren egunetik kontatzen hasita.

8.4.– Berezko izaera kontuan hartuta araudi honetatik kanpo geratzen da osasun zioengatiko borondatezko aldi baterako mugikortasun horizontala.

II. ATALA
LANPOSTUAK BEHIN-BEHINEKO BARNE-SUSTAPEN BITARTEZ BETETZEKO IRIZPIDEAK

1.1.– Ezaugarriak.

Lanpostuak behin behineko barne-sustapenaren bidez betetzeak, Erabaki honek arautua, helburutzat dauka zerbitzu-erakunde berean edo jatorrizkoa ez den beste batean lanpostuak betetzea; lanpostu hori ez da izan behar langile finko izaera duen kategoria/lanpostu funtzional berekoa, eta lanpostua lortzeko eskatzen den titulua jatorrizko kategoriakoaren parekoa edo maila handiagokoa izan behar da, dagokion titulazioaren jabe izanik.

2.– Baldintzak.

Barne-sustapen bitartez lanpostuak aldi baterako bete ahal izateko baldintzak honakoak izango dira, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean interesa duten pertsonek bete beharko dituztelarik:

– Osakidetzako Zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, langile estatutarioa edo langile laboral finkoa.

– Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila berdinekoa edo baxuagokoa den beste kategoria batekoa izatea.

– Lortu nahi den kategoria berean ez izatea karrerako funtzionario, langile estatutario finko edo langile laboral finkoko izendapenik, izendapen edo kontratu horrekiko daukan egoera administratiboa edozein izanda ere.

– Deitzen duen zerbitzu-erakundeari atxikita egotea langile finko bezala, dagokion zerbitzu-erakundeko langileen arteko barne-sustapen deialdia denean.

– Joan nahi den zerbitzu-erakundea ez den beste zerbitzu-erakunde bati atxikita egotea langile finko bezala, zerbitzu-erakundeetako langileen arteko barne-sustapen deialdia denean.

a) Que exista causa justificada y autorizada por la Dirección de la Organización correspondiente.

b) En el supuesto de que la duración previsible de la comisión de servicios sea inferior a seis meses.

En el resto de supuestos la renuncia supondrá la no adjudicación de una nueva comisión de servicios en el mismo municipio del puesto al que se renuncia durante un periodo de un año a contar desde la fecha de la misma.

8.4.– Se excluye de la presente regulación por su carácter específico, la movilidad horizontal voluntaria temporal por motivos de salud.

APARTADO II
CRITERIOS PARA LA PROVISIÓN DE PUESTOS MEDIANTE PROMOCIÓN INTERNA TEMPORAL

1.–Características.

La cobertura de puestos de trabajo mediante promoción interna temporal, regulada en el presente Acuerdo, tendrá por objeto la cobertura de puestos de la misma o de otras organizaciones de servicios distintas de la de procedencia, y pertenecientes a otra categoría/puesto funcional distintos de aquélla en la que se ostenta la condición de personal fijo, siempre que el título exigido para el ingreso sea de igual o superior nivel académico que el de la categoría de procedencia, y se posea la titulación correspondiente.

2.– Requisitos.

Serán requisitos para acceder a la cobertura de puestos de trabajo con carácter temporal mediante promoción interna temporal, que deberán reunir las personas interesadas al último día de plazo de presentación de solicitudes, los siguientes:

– Ser funcionario/a de carrera, personal estatutario o laboral fijo adscrito a las Organizaciones de Servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

– Estar en servicio activo y pertenecer a otra categoría de igual o inferior nivel de titulación que aquella a la que se opta.

– No tener en la misma categoría a la que se opta nombramiento, como funcionario de carrera o personal estatutario fijo, o contrato laboral fijo, cualquiera que sea la situación administrativa en la que se encuentren en relación con dicho nombramiento o contrato.

– Estar adscrito como personal fijo a la organización de servicios convocante, en el supuesto de convocatoria de promoción interna entre el personal de la correspondiente organización de servicios.

– Estar adscrito como personal fijo a una organización de servicios distinta de aquella a la que se opta, en el supuesto de convocatoria de promoción interna entre organizaciones de servicios.

– Urte betetik gora ematea etenik gabe, aldi baterako barne-sustapenean lortu nahi den kategoria berean egonez gero.

– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko lanpostu funtzionalak eta deitutako azken EPEn kategoria horretan eskatzen ziren gainontzeko titulazio eskakizunak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak ezartzen duen titulazioa izatea.

3.– Deialdia.

IV. atalean ezarritako deialdia eginda, hala badagokio, eta bertan agertzen diren zerrendak agortuta egonda, sistema honen bidez bete beharreko lanpostua dagokion zerbitzu-erakundeko Zuzendaritza-Gerentziaren Ebazpenaren bitartez deituko da, I Eranskinean agertzen den ereduari jarraiki, eta zerbitzu-erakundeetako iragarki-taulan argitaratu beharko da, eta baita Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko web-orrian ere. Deialdiko Ebazpen bakoitzak meritu-baremoa jasoko du, eta baita bertan parte hartzeko eskatzen diren gainontzeko baldintzak ere.

Deitutako lanpostuaren kategoriara sartzeko azken EPEn proba praktikoa eskatu izanez gero, lanpostuaren deialdiak ere proba praktikoa egitea jaso ahal izango du, lanpostua betetzeko eskatzen diren ezaguera espezifikoak egiaztatzea helburu; dena dela, proba egitetik salbuetsita egongo dira EPE horretan berau gainditu zutenak.

